


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2004KO OTSAILA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuek % 0,8 gora egin zuten, 2004ko otsailean

Azken hamabi hilabeteetan (2004ko otsaila, 2003ko otsailaren gainean), eraikuntzaren kostuak % 3,3 handitu dira.

2004ko otsailean, % 0,8 goratu zen Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea, aurreko hilaren aldean, eta, horrenbestez, hil horretako urte arteko tasa % 3,3koa da, Eustatek eskainitako datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1996-2004



(*)Eskainitako hazkundea otsaileko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2004ko otsailean, lan-eskuaren kostuak ez du aldakuntzarik izan (% 0,0); lehengaien kostuak, berriz, % 1,1 hazi dira.

Eraikuntza eta *obra zibila* azpisektoreek bilakaera berdina izan euren kostuetan: eraikuntzarenak % 1,2 gehitu dira aurreko hilaren aldean; eta obra zibilarenak, % 0,7, bost hamarren gutxiago, alegia. Azpisektore bi horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, ikusiko dugu ez dutela hor ere bide berdina egin: *eraikuntzako* lehengaien kostuak % 3,3 hazi dira, eta *obra zibileko* lehengaienak, aldiz, % 1,3.

Otsailean, lehengai hauek izan dira euren prezioetan hazkunderik handienak izan dituztenak: *zementutik eratorritako gaiak* (% 3,4), *metalezko hodiak* (% 2,3) eta *burdina eta altzairua* (% 2,1). Aitzitik, prezioetan murrizketak izan dituzte *olioak eta koipeak* (% -2,3), *petroliotik eratorriak* (% -2,2) eta *leherkariak eta gasak* (% -1,9) lehengaiak.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteen, hauek izan dira inflazio-tasarik handienekoak: *karea*, *igeltsua eta eskaola* (% 9,2), *burdina eta altzairua* (% 8,2), *zementutik eratorritako gaiak* (% 7,4) *metalezko hodiak* (% 5,6) eta *pinturak eta bernizak* (% 5,5). Beste alde batetik, urte arteko prezioetan (2004ko otsaila, 2003ko otsailaren gainean) murrizketak izan dituzte *petroliotik eratorriak* (% -14,8), *asfaltozko produktuak* (% -13,5), *harri landua* (% -5,0), *energia elektrikoa* (% -3,7) eta *bulegoko materiala* (% -3,2) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2004KO OTSAILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	111,0	0,8	3,3	3,3	
ERAIKINAK	111,0	0,8	3,5	3,4	
OBRA ZIBILA	111,3	0,5	2,3	2,7	
LEHENGAIEN KOSTUA	106,8	1,1	2,9	2,9	
ERAIKINAK	107,0	1,2	3,3	3,1	
OBRA ZIBILA	106,1	0,7	1,3	2,0	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	120,8	0,0	4,0	4,0	

Iturria: EUSTAT

Metodologia-oharra

2004ko otsaileko eraikuntzaren kostuen indizea 2000 oinarri berriaren gainean landu da, eta, horrenbestez, orain arteko 1995 oinarrikoei segida ematen die. Oinarri aldaketa horrek berekin dakar, beste hainbat hobekuntzaren artean, Euskal AEko eraikuntza-sektoreko produktu eta lehengai adierazgarrienak eguneratzea, haien kopurua eta estaldura nabarmen handituta.

2000 oinarriko serie berria 1995 oinarriko aurreko serieari lotuta dago, eraikuntzaren kostuen indize honek 1995az geroztik eskaintzen dituen hileko, hiruhileko eta urteko datuen segimendua egin ahal izateko moduan.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tel.: +34-945 01 75 05. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es